

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

OIARTZUNGO UDALA

Oiartzungo udal araubideko etxebizitza tasatuak arautzeko udal ordenantzaren aldaketa.

Udal honek 2025eko martxoaren 26ean eginiko Osoko Bilkuran Oiartzungo udal araubideko etxebizitza tasatuak arautzeko udal ordenantzaren aldaketa onartu zen (10. eta 11. artikuluetan udal araubideko etxe tasatuen eskualdaketetan salneurria errespetatu arazteko prozedura berria aurreikusteko, eta 12. artikuluan akatsa zuzentzeko).

Aipatutako erabakiari jarraiki, espedientea jendaurrean jarriko da 30 eguneko epean, hain zuzen ere iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den hurrengo egunetik hasita. Epe horretan interesatu guztiek Udal bulegoetan espedientea aztertu ahal izango dute eta erreklamazioak edo iradokizunak aurkeztu ahal izango dituzte Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak araututako lekuetan eta moduetan.

Jendeari erakusgai egoteko epea igarotzen bada inolako erreklamaziorik edo oharpenik jaso gabe, behin betiko onartutzat joango da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Oiartzun, 2025eko apirilaren 2a.—Joana Mendiboure, alkatea.
(2650)

AYUNTAMIENTO DE OIARTZUN

Modificación de la ordenanza municipal reguladora de la vivienda tasada de Oiartzun.

El Pleno de la Corporación en sesión ordinaria celebrada con fecha de 26 de marzo de 2025 acordó aprobar el cambio en la «Ordenanza reguladora de las viviendas tasadas de Oiartzun» (Prever un nuevo procedimiento para hacer respetar el precio de venta en las transmisiones de viviendas tasadas de régimen municipal en los artículos 10 y 11 y corregir un error en el artículo 12).

En virtud de dicho acuerdo, se somete el expediente a información pública durante el plazo de 30 días, a contar desde el día siguiente a la publicación del presente anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa. Durante dicho plazo cuantas las personas interesadas podrán examinar el expediente en las oficinas municipales y podrán presentar las reclamaciones y sugerencias que consideren oportunas en los lugares y por los medios legalmente establecidos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Si transcurrido el plazo de información expresado no se hubiera presentado reclamación u observación alguna, se tendrán por aprobada definitivamente sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo.

Oiartzun, a 2 de abril de 2025.—La alcaldesa, Joana Mendiboure.
(2650)